

OFRANEH

Honduraseko Organización Fraternal Negra OFRANEH



Aurelia Arsún eta Karen García



Garifunak Erdialdeko Amerikako zenbait herrialdetan zehar bizi gara: Guatemala, Belize, Honduras eta Nikaragua. Gure arbasoek garifuna herriko emakumeen inguruko kondaira ugari kontatzen zizkiguten. Horien artean Barauda agintariarena dugu, Satuyeren emaztea zena. Oso emakume indartsu eta kementsua zen, garifunon egoztearen ondorioz izugarrizko kalbarioa pairatu zuena. Horrek ondarea utzi du gudan, horregatik gara emakume garifunak hain borrokalariak, bere bilobak garelako.

Gizonezkoak gurekin daude borrokan bai, baina lurraren defentsan lehen lerroan ari garenak emakumeak gara batik bat. Horren adibide argia Berta Cáceres dugu, COPINHeko koordinatzailea zena. Orain, emakumeok koordinatzaile garen geroztik hain zuzen, OFRANEH bere gorenera eramatea lortu dugu. Koordinatzaile nagusia Miriam Miranda dugu gaur egun. Bere aurretik zegoen emakumea, Gregoria Flores, erbestera alde egin behar izan zuen Amerikako Estatu Batuetara, mehatxuen ondorioz egoera jasangarria bilakatu baitzen berarentzat. Miriam kargua uztean, bere



tokia beste emakume batek hartzea da gure nahia. Izan ere, herri indigenen borrokan aurpegia ematen ari garenak emakumeak gara, eta are gehiago garifuna herriaren kasuan.

Hori dela eta, emakumeon borroka oso gogorra izan da Hondurasen, are zailagoa indigenak eta garifunak garela kontuan izanik. Arrazakeria ere oso presenta dago oraindik. Bizi dugun sistema hau behin eta berriz gu lumatzen saiatu da, hori asko areagotu egin da 2009ko prozesuaz geroztik. Horregatik, herrialde honetan hiru estatu kolpe izan direla deritzogu: 2009. urtekoa, 2012koa eta azken hauteskundeetan emandakoa. Ez dago inolako gobernagarritasunenik eta huts egindako estatu bat bilakatu gara.

Lehenengo eta behin, Hondurasen, emakumeenganako gorrotoa errotuta dagoela esan genezake, gero eta gehiago antzematen ari gara errealtate hori, tamalez. Gure herrialdeak dituen estatistika latz guzti horien gainera, bat nabarmentzen da zoritxarrez: feminizidioen tasa, hain zuzen. Emakume izate hutsagatik hil egiten zaituzte, eta arriskua asko areagotu egiten da emakume defendatzaileen kasuan. Mundu mailan oihartzun handia izan zuen Berta Cáceresen erailketa esaterako. Herrialde honetan, emakume defendatzaile aldarrikatzea, kriminalizazioa eta heriotza dakar bere atzetik.

Emakumeok hezkuntzaren kontra borrokatu behar dugu, arrazakeriaren kontra, eta horretarako gure gorputz-lurraz baliatu behar gara, gure osasunaz baliatu behar gara. Hori dela eta, gutxietsi egin nahi gaituzte gizartean eta, esate baterako, gure emagin propioak kendu dizkigute orain. Horrek, gure kontrako eraso zuzena suposatzen du, izan ere, gorputza zaintzeko beste ohitura batzuk ditugu herri indigena gisa. Erditu eta gero, medikuek pilula eta botika ugari kontsumitzera behartzen gaituzte, gure kulturaren berezkoak ez direnak, alegia. Gauza bera gertatzen da hezkuntzarekin, behartu egiten baikaituzte gurea ez den heziketa bat jasotzera. Beraz, gudu-zelai bilakatu da emakumeon gorputza, gu garelako erresistentzia borroka horren buru.

Garifuna komunitateetan gertatu izan den guztiak helburu zehatz bat izan du, estatuak garifuna herria desagerrarazteko erabili duen estrategiaren ondorio zuzena. Gu, garifuna emakumeak, koko olioaren ekoizle gara. Orduan, Honduraseko estatuaren erabakia koko zuhaitza akabatzea izan da, gu hondurastar bezala



ezagutzen ez gaituzten heinean, eta gure oinarrizko biziraute produktua erabat moztuz. Gaixotasun larriak areagotu ziren kokoen inguruan, asko ahuldu zutenak landarea bera, eta, ondorioz, kostaldeko komunitateak higaduraren aurka babesteko zuten hesi naturala ere galduz joan dira. Gure gastronomia ere kokoaren erabileran oinarritzen da batik bat. Baina enpresa estraktibistek palma afrikarra ekarri zuten gure lurraldera, olioia ekoizteko eta kontsumitzeko. Herio proiektu bat bilakatu zen. Palma honen produktu asko kontsumitzera behartu gintuzten eta orain, horren ondorioz, gaixotasun larriak jasaten ditu: diabetesa, presio arteriala, azido urikoa... gure arbasoek inoiz imajinatuko ez zutena. Dena palma afrikarra kontsumitu beharraren ondorio zuzena izan da.

Hori izan zen, hain zuzen, Estatuak erabili izan zuen lehendabiziko estrategia komunitate garifunak desagerrarazteko. Ondoren, gure identitatearen galera agertu zen. Sistemak goitik behera aldatu egin du gure bizimodua. Gure ohitura eta mundu-ikuskera propioa dugun herria gara, eta beste bizimodu batera egokitzea gure buruak, asko eragiten gaitu herri eta emakume gisa. Gaur egun, 22 eta 23 bitarteko emakume ugari hiltzen ari dira diabetes edota minbizi zerbikalaz jota. Guzti hau inposatu izan ziguten elikaduraren ondorio zuzena da, oso argi dugu hori. Gure elikadura propioa ekoizteko aukerarik ez dugu jada, gure gastronomia galtzear dago.

Ez gaude batere ohituta gure gorputza moztera. Esaterako, erditzerako unean ebakuntza egiten dizute normalean, nahiz eta beharrezkoa ez izan erditze arrunt baterako. Emaginak gure komunitateetatik bota zituzten horregatik. Lehen, erditu eta gero, emakumeak lasai geratzen ziren emaginek ematen zizkieten sendagai naturalak zirela eta, oso azkar osatzen ziren. Gaur egun, ordea, derrigortuta jo behar duzu ospitalera, biktima bat bilakatzen zara bertan, bortxatu egiten zaituzte: ebakuntzak egiten dizkizute eta haur gehiago izan ez dezazun pastillak hartzera behartzen zaituzte.

Erakunde gisa, dugun helburu nagusienetako bat gure arbasoen medikuntza tradizionala berriro sustatzea da, beraz, borrokaren ardatz nagusienetako bat dugu hau. Inposatu diguten sistema hau gure izaera guztiz eraldatzen saiatzen ari da, horregatik, gure identitatea sendotzeko egiten dugu borroka.

Emakumearenganako goitik beherako aldaketa ere sumatu dugu espiritualtasunaren kasuan. Gure arbasoek utzitako espiritualtasuna asko miresten eta errespetatzen



dugu. Jendeak behin eta berriz galdetzen digu ea nola egin genuen Vallecito askatzeko, armarik erabili gabe eta soilik marakak eta danborrak joz, gure tabako eta lurringai sakratuak erabiliz. Erantzuna erraza da: gure arbasoak gurekin izan ziren han, haien indarra ematen. Praktika horiek ere laidoztatu nahi izan dituzte askotan.


Lurraren arazoa ere kontuan hartu behar dugu: lurra ez dugunez, emakumeok ezin dugu lanik egin. Horren ondorioz, askok alde egin behar izan dute atzerrira, baina migrazio behartu bat dela esan genezake. Gure ekoizpenetatik bizi gara oro har baina, lurrik ez badugu, ze beste aukera geratzen zaigu? Ez dugu inolako aukerarik, eta ezin dezakegu aurrera egin gure seme-alabei etorkizun oparo bat lagatzeko.

Atzerrira joatea oinarrizko eskubide bat dela badakigu baina, hala ere, erakunde gisa horrek asko kezkatzen gaitu. Izan ere, migrazioak izugarrizko eragina izan du garifuna herriarengan. Gaur egun migrazio eredu desberdinak agertzen ari dira, batzuk hirietara joaten ari dira, baina beste asko atzerrira alde egiten ari dira. Azken hau da guri gehien kezkatzen gaituena, hauetariko asko eta asko amak direlako, eta beren seme-alabak eramaten dituzte ere haiekin batera. Beraz, itzulerarik gabeko bidaia da, ez dira sekula itzuliko.

Amerikako Estatu Batuek estrategia landua eta oso zehatza dute Hondurasen ezarri nahi dituzten proiektu estraktibistak aurrera ateratzeko. Hasiera batean hiri ereduak izan ziren eta, nahiz eta ezizena aldatu, funtsean, gauza bera zen. Interes dute gure lurak gal ditzagun, Honduraseko kostaldean izan ez gaitezen. Horregatik baztertu nahi gaituzte. Gobernuak beti aldarrikatu izan du gu ez ginela benetako hondurastarrak.

Gure eskualdeetan ematen ari diren proiektu erauzleen kontra borroka egitea oso zaila da, proiektu ugari ari dira sartzen jada: meatzaritza, termoelektrikoak, ibaien desbideraketak etab. Esaterako, Aguango Santa Rosan, nire komunitatean bertan, oso kasu korapilatsua dago Aguan ibaiaren ubidearen desbideraketarekin. Arrainak kontsumitzen genituen han bertan, baina gaur egun ibaiko flora eta fauna guztia suntsitu dute. Orain erabat akabatuta dago dena, eta gehien pairatzen dugunak emakumeak gara.

Gure lurraldeak bizi duen harrapakeria basatia Ama Lurra guztiz hiltzen ari da. Bizi ohi dugun egoera honek gure gorputzak erasotzen ditu, lurra eta natura ere gaixotzen





dituen heinean. Lurrak jasotzen dituen kalte guztiak gure gorputzek pairatzen dituzte, gorputzak eta lurrak izaki oso bat baitira.


Komunitateetan bizi ohi ditugun testuinguruak kontuan hartuta, antolatuta egotea nahitaezko bilakatu da azken urteotan. Indarrak batzea eta gure artean sare sendoak osatzea guztiz garrantzitsua da, eta erabat beharrezko ere.


Ni, emakume eta garifuna naizen heinean, beti maite izan dut borroka. Talde ezberdinetan parte hartu izan dut betidanik gure komunitatean, kirol zein dantza taldeetan besteak beste. Halaber, gizon talde bat zuzentzen ibili nintzen zazpi urtez. Hortik aurrera, Patrona ezizenaz ezagutzen ninduten. Ondoren, nire komunitateko ibai-desbideratzearena gertatu zen. Gure aberastasun natural izugarria kapitalisten, botereen, sistema beraren eraginez bakarrik zapuzten dela ikustea oso mingarria da, erabat sumingarria. Oso erraz suntsitu dezakete ingurugiroa ondorioak kontuan hartu gabe. Norbera maitemindu egiten da, borroka beharrezkoa eta zuzena delako.

Gure borroka guztiz bidezkoa da, eta horrek gero eta gehiago bultzatzen zaitu aurrera egiteko. Ez da batere lan erraza borroka bertan behera uztea, are gehiago gure inguruan ematen diren bidegabekeriak antzematen dituzunean. Baina ez soilik gure herrialdean, mundu osoan zehar, indigenak etengabe ari gara borrokan.

Gure arbasoetatik zuzenean jasotako barne indar bat dugu. Horri esker, gutxi gorabehera, sendabidea aurki genezake baina, hala ere, ezin genezake esan osasuntsu sentitzen ditugula gure bihotz edo gorputzak. Ez da batere erraza entzutea kide bat hil dutela defendatze hutsagatik. Gure laguna den Karen kartzelatzen ari direla entzutean adibidez, edota Armenia eskualdean dagoen Carolina Castillo kidearen kasua entzutean, garifuna herriaren emakumerik epaituena bilakatu dena jada, 14 epaiketa eta demanda dituenak bere gain hain zuzen. Herri honetan bizi ditugun kezkek ezin zaituzte osasuntsu mantendu inola ere. Bizirautean ari gara, erresistentzia hutsa bilakatu gara. Hala ere, gure tresnak eraiki behar izan ditugu. Espiritualtasunak asko lagundu izan digu betidanik herri gisa, horregatik luzatzen diegu mezu hau gainontzeko herri indigena guztiei: beren espiritualtasunari eutsi diezaiotela. Horrek, une latzak zertxobait leuntzeko aukera eskaintzen digu bai, baina ez ordea behin betiko sendatzeko, tamalez.

Gure sema-alabek eta bilobek duintasun osoz bizi dezaten etorkizun batekin egiten





dugu amets. Agian esku hutsik egon gaitezke ekonomikoki, baina oso aberatsak gure itsasoarekin, gure lurrarekin... Seme-alabek gure ingurugiroak duen balioaz jabetu behar dira, gure itsasoak, errekek, zuhaitzak, landareak... Hori da herri indigenok, garifunok, dugun altxorra, eta haiek ere maite egin behar dute guk egiten dugun antzera.

Ondorengoei gure arbasoek oinordetzan utzitako mundu bat lagatzea gustatuko litzaiguke guri ere, inolako indarkeriarik gabe, baketsua. Gure ondareaz askatasunez gozatzeko etorkizun bat.

Ustezko garapen hori heldu aurretik, testuinguru indigena guztiz desberdina zen, osasuntsua zen, mundu garbi bat genuen. Gure komunitateetan sartu zirenetik, herri indigenen lasaitasuna guztiz galdu zen, garifunen kasuan adibidez. Egunen batean itzuliko denaren itxaropena dugu oraindik ere. Erreza ez dela jakin badakigu, baina ezinezkoa ez dela ere argi daukagu. Gure ezagutzak seme-alabei irakasten badizkiegu, agian haiek amesten dugun mundu hori osatzeko aukera izango dute. Komunitateetan ateak itxi gabe egiten genuen lo, elkartrukean oinarritzen ginen, auzokoak zeozer ez bazuen partekatzen genuen, lurra bera partekatzen genuen... dena. Mundu horrekin amesten dut nik niretzat, baina batez ere nire biloba eta birbilobentzat.